



# Aro Modernoa

Erdi Aroaren ondotik datorren eta 1453. urtetik 1789. urtera bitarteko garaia esaten zaio **Aro Modernoa**. Teknika berriak, itsasbidaietarako aurrerapenak, hirien eta merkataritzaren indartzea, salerosketa eta diru prestaketaz aberastutako jendea... aldaketa nabariak eta garrantzitsuak izan ziren aro honetan.



## Merkataritza, industria eta banka

Itsasbide luzeetan zehar itsasontzi handiek mota guztietako produktuak garraiatzen zituzten. Hori zela eta, kaietako iharduera eta ontzigintza indartu egin ziren. Haien inguruan, merkatariaik aberastu egin ziren, dirutza handiak pilatuz. Diru honekin bankuak sortu, maileguak egin eta industri berriak martxan jarri zituzten. Bankari eta lantegien jabe bilakatu ziren merkatariaik.



**Merkatariak, kultur zaleak**

Florentzia bezalako merkataririk hirietan, aberatsek kulturari laguntza eskaini zioten. Artisten laguntzaile edo *mezenas* hauen artean, Lorentzo Medici zegoen. Bera bezala, beste merkataririk eta aberats berri asko, arteari eta kulturari babesa ematen saiatu ziren.

Lorentzo Medici (1449-1492)

Leonardo da Vinci (1452-1519)  
*Gioconda* margotzen.



**Artista paregabeak**

Rafael (Raffaello Sanzio), Migel Anjel (Michelangelo), eta, bereziki, Leonardo da Vinci izan ziren garaiko artista paregabeak. Margolaria, musikaria, eskultorea, olerkaria, asmakaria eta beste gauza asko izan zen aldi berean Da Vinci. Beronen margolan sonatuetakoa, *Gioconda* izeneko erretratoa da.



Migel Anjel (Michelangelo Buonarroti (1475-1564)) margolaria, eskultorea, arkitektoa eta olerkaria, *Esklabua* lantzen.

**Gizakia, zientzia eta erlijioa**

XV. eta XVI. mendeetan hirietako jende kopurua hazi egin zen eta nekazari giroko biztanle goa gutxitu: jendea hiritartu egin zen. Hiriko bizimodu honek ideien eta ohituren aldaketa nabaria eragin zuen.



Eguzkiak Lurraren inguruan birak ematen zituela zioen Elizak.

Nikolas Koperniko (1473-1543)

Kopernikok frogatu zuen Lurra zela Eguzkiaren inguruan birak ematen zituena.

Gizakia eta giza balioak gainontzekoen gainetik jarri ziren garai hartako pentsamenduan. Zientzia eta kultura ez zeuden, jadanik, fraileen esku, Erdi Aroan bezala, hirietako zientzilarien eta jakintsuen esku baizik. Erlijioaren inguruan ere gauza berdintsua gertatu zen: ideiak berriak sortu eta, horien ondorioz, erlijio-borrokak piztu ziren.